

Historiaurrea berri Ek

A. Sarriegi

Beñardo Kortabarria*

Azkenaldian eztabaida-hotsak izan dira nagusi Ekaingo kobazuloaren inguruan. Komunikabideek gustura baino gusturago eta behar den adina toki eskainiz islatu dute eztabaida, Deba Behereak edo Zestoak ustiatu behar du Ekaingo kobazuloaren historia?

Izan ere, kobazuloa Debako lurretan dago, baina Zestoako herrigunetik kilometro eskasera, udalerrri biak arrazoiaren jabe direlakoan daude, biek botatzen dituzten euren aldeko argudioak eta bakoitzak kobazuloarekiko proiektu bana du. Bi proiektuen arteko konponezina azaltzeko ahaleginak egin dituzte komunikabideek, baina horretaz gain, Ekaingo kobazuloaren gaiak beste bi gauza ere garbi samar utzi ditu: bata, gizateriaren historiaurrea hobeto ulertzeko munduan dagoen perlarik preziatuenetarikoa dela Ekain; bestea, orain arte erdi ezkutuan egon den kobazuloa ezagutzeko aukera eskainiko duela teknikak, kobazuloan bertan egonda bezala.

inen

Ekaingo altxorra. Aranzadi elkar-teko J.M. Barandiaranek eta J. Altunak kobazuloa bisitatu eta margoak ikusi ondoren, Ekain ixteko erabakia hartu zuten.

Denborak eta Altamira edo Lascaux-en gertatutakoak, Ekain ixtea har zitekeen erabakirik onena izan zela argi erakutsi dute, baina orduan ez zuen ez kritika gutxi sortu. Kultura lapurtzen ari zirela, turismoa erakartzearen kontrako neurria zela... horrelakoak entzun behar izan zituzten Barandiaranek, Altunak eta konpainiak. Santimamiñe, Galdamizko Arenaza, Orioko Altxerri, Arabako Solacueva... jende guztiarentzat zabalik egotearen ondorioz hondatu den ondarearen adibide dira; Ekain, berriz, eredu-garri da ondarea zegoen bezala gordetzeko lan horretan. Izan ere, Ekaingo pinturen labar-multzoa eta bera hartzen duen zuloa egun berean aurkitu zirenez, ez da tartean aukerarik egon norbait sartuz zerbait hondatu zedin.

Gaitzik ez Ekainen

1969. urtetik hona ezer gutxi aldatu da Ekainen. Hasiera-hasieran jarritako burdinazko bi atek han daude oraindik, Aranzadiko norbait sarri-sarri joaten da atek ikuskatzera, ez da sekula argindar finkorik jarri, bisita-kopurua eta adina (18 urtetik gorako 6 lagun) mugatuak dira, linternak erabiltzen dira eta bisita Aranzadiko gida batek zuzentzen du. Hartutako neurriei esker, Ekaingo labar-arteak ez du inolako gaitzik jasan behar izan, ez zuririk ez berderik eta ezta beste edozein koloreko gaitzik ere.

Labar-artean bi motako kalteak sortzen dira kobazuloetara egindako bisiten ondorioz, *gaitz berdea* eta *gaitz zuria* izenarekin ezagutzen direnak. *Gaitz berdea* bisitarien arropetan eta oinetakotan alga, goroldio, onddo, edo bakterio-espork sar daitezkeelako sortzen da. Espora horiek kolonietan antolatzen dira eta ugalduz joaten dira; batzuetan argiaren beharrik gabe (onddoak eta bakterioak); beste batzuetan, argiak eta bisitariak sortzen duten karbono dioxidoaren laguntzaz (algak, goroldioa). Koloniek ziklo klorofilikoa osatuz, kobazuloetako hormak berdez jatzten dituzte, margoak estaltzeraino. Antibiotikoen, fungiziden edo algizidena bidez egiten zaio aurre *gaitz berdeari*.

Gaitz berdea baino askoz ere kaltegarriagoa da *gaitz zuria*, margoak ukitu barik ezin baitzaio aurre egin. Kararrizko hormaren gainean kararrizko kristaltxoak jartzen direnean sortzen da *gaitz zuria*. Kobazuloetan kaltzio karbonato eta bikarbonatoen arteko erreakzioak berez gertatzen dira, baina bisiten ondorioz, tenperaturak gora egiten duenez eta karbono dioxidoa sortzen denez, erreakzioak aldatu eta kristaltxoak agertzen dira. Lascaux-eko kobazuloan gertatutakoak jarri zuen agerian bisiten eta margoen gaitzen arteko harremana.

Bere sasoiari hartu ziren neurriak hartu izanagatik, gaitzik ez du Ekainek; erakusteko asko bai, ordea. Ekaingo kobazuloa oso ezaguna bihurtu da historiaurreko ikerketa-arloan, bertan dauden labar-arteak irudiengatik. Pa-

Ezkutuko altxorra

Azpeitiarrak dira behe-debatarren eta zestoarren arteko gaur egungo konponezinaren nolabaiteko "errudunak", bi gazte azpeitiarrek aurkitu baitzuten Ekaingo altxorra 1969. urteko ekainean, Aranzadi Zientzia Elkarterako lanean zebiltzala. Kobazuloaren inguruan laginak ateratzen ari zirela, zulo-txo batetik haize hotza irteten zela ohartu ziren. Antza denez, atzerago zulo handiagoa dagoenaren seinale. Zulo-txo zabaldu eta bertatik sartu ziren narrasean. 20 metro inguru egin zituzten era horretan, zuloa apurka-apurka zabalduz zihuan bitartean. Bat-batean, barruko horma batean zaldiak eta beste hainbat figura aurkitu zituzten margotuta,



Bere sasoiari hartu ziren neurriak hartu izanagatik, gaitzik ez du Ekainek; erakusteko asko bai, ordea.

leolitoa aztertu nahi den edozein lanetan ezinbesteko omen dira Ekaingo pinturak. Guztira 70 irudi daude Ekainen, 64 margo eta 6 grabatu. Gainera, pintura batzuek grabatu-lana ere badute. Pintura gehienetan kolore beltza erabili den arren, bost pinturetan okreakin nahasita ikus daiteke. Zaldia ageri da gehien, bisontek ere sarri; oreinak eta basantzak ikus daitezke, izokin bat, eta azkenik, hartz pare bat. Adituek diotenaren arabera, pinturak Erdi eta Goi Madeleine aldikoak izango lirateke, duela 12.000-15.000 urtekoak.

Gorderik dagoen altxorra, altxorra da?

Hainbeste erakusteko, ...eta ikusteko hain aukera murrizak? Argi dago Ekain ixteko erabakia zuzena izan zela; zabalik utzi izan balitz, behar bada, gaur egun ez

meran etorri zaizkie Aranzadi-koei kobazuloen erreplikien arloan gertatu diren aurrerapausoak. Baita gordetzeko asmo horrekin agertu diren bi proiektuak ere.

Bi Ekain

Hala ere, zestoarren eta behe-debatarren desadostasunak hortik datoz. Izan ere, jendeak bisita dezan, bakoitzak bere herritik gertu nahi du kobazuloaren erreplika, eta bakoitzak du bere proiektua.


Deba Behereko udalek bailara krisialditik irteten laguntzeko aukera ikusi dute Ekaingo proiektuan, turismoa indartzeko esperantza. Horretarako balizko bisitarien zat 40 hektareako natur ingurunea eta arlo desberdinak jasoko lituzketen lau eraikuntzako proiektua prestatu dute, balizko bisitariak egun oso bat bertan igarotzeko moduan jarrita.

Zestoako proiektuak dioenez, Sastarrain osoaren babes orain gutxi onartu den plan berezi batean sartuko litzateke, kobazuloaren ingurunea bere hortan gordetzeko. Erreplikan, zaldien galeriako pinturak, hartz-multzoa eta hartzen galeriaren ingurunea, eta zaldi baten burua egingo lirateke. 500 milioiko aurrekontua Sastarraingo gune babestua gorde, kobazuloaren erreplika egin, eta Lili jauregia museo bihurtzeko. Ekaingo erreplika, bainuetxearekin, Loiola alde batetik eta kostaldea bestetik oso gertu edukitzearekin, eta orain gutxi aurkitu den Iriakaitzeko haztarnategiarekin batera, interes-gune bat gehiago izango litzateke Zestoarentzat.

Iragana gaurkotzeko teknika

Eguneroko prentsek azkenaldian argitaratu dituzten berrien arabera, badirudi Zestoako proiektuak egingo duela aurrera. Eta egia da eztabaida berri izan dela, eta eztabaida egon hor dagoela, baina artikulu honen asmorako horrek ez du ezer asko esaten, helburu nagusia kobazuloen erreplikak egiteko teknika azaltzea baita.

Ondarea babesteagatik eta jendeari ezagutzera emateagatik egiten dira erreplikak, hots, kultura zabaltzeagatik. Kobazulo baten lehen erreplika 60. hamarkadan egin zen, alemaniarrek Municheko "Deutsches Museum"-erako Altamirako kobaren zati baten erreplika egin zutenean. Espainiako gobernuak eman zien erreplika egiteko baimena alemaniarrei, baina trukean Madrilgo Arkeologi Museoaren lorategi azpian beste bat egin behar izan zuten. Ondorengo erreplika Frantzian egin zen, Dordoniako Lascaux-en 1990en bueltan. Oso kopia leiala da, lurrizpian egina. Aire jatorrizko kobaren tenperatura berean dago, eta musikaren bidez historiaurreko kobek zeukaten tanta-jarioa gogorarazten da. Apur bat beranduago Niauxko kobazuloaren erreplika egin zen Tarascon-en, Frantzian, baina



Hala ere, zestoarren eta behe-debatarren desadostasunak hortik datoz. Izan ere, jendeak bisita dezan, bakoitzak bere herritik gertu nahi du kobazuloaren erreplika, eta bakoitzak du bere proiektua.

litzatekeelako zer ikusirik egongo. Hala ere, altxorra gordeta edukitzea erabakiak kontraesan puntu bat ere izan dezake; zeren eta inork ikusi behar ez baditu, zertarako gorde? Aranzadi Zientzia Elkarteak aitortzen dutenez gero eta jende gehiagok egiten du Ekaingo kobazuloa bisitatzeko eskabidea. Bestalde, gazteendako (interesa izan edo ez) itxita daude Ekaingo ateak, ez baita 18 urtetik beharako bisitarik onartzen. Hortaz, ondarea zaintzea eta ondarea zaintzen irakastea denon lana bada, zergatik ez eman denei aukera berdina? Horrelako pentsamenduen artean zebiltzala, pri-

Proiektuaren arabera, harrera egiteko eraikin bat egingo litzateke, erreplika gordeko lukeen 1.374 metro karratuko beste eraikin bat, arkeologi eta estetikaren erakusketa-zentroa, abangoardia berrien erakusketa-zentroa, eta azkenik, mitologia- eta espresio-tailerraren zentroa. Aurreko guztia Astigarribiako haranean kokatuko litzateke, Deba ibaiaren ezkerrean eta Mutrikuko lurretan, herrigunetik lau kilometrorera.

Zestoarren proiektua Sastarrain auzoan garatuko litzateke, jatorrizko kobatik 500 metrora eta herrigunetik kilometro ingurura.

HISTORIAURREA BERRI EKAINEN



Kanpoaldeko itxidurari esker, egoera bikainean aurkitzen dira Ekaingo margoak.



B. Kortabarría

Sastarraingo tontortxo honetan egin nahi dute zestoarrek Ekaingo erreplika.

B. Kortabarría



kasu honetan museo baten barruan. Aipatutakoak, orain arte egin diren erreplikak dira. Dagoeneko martxan dagoen proiektua da Altamirako erreplika, museo baten barruan egingo da hau ere. Baina proiektu honek badu berezitasun bat, orain artekoak ez bezala, Altamirako erreplikari koba barruaz gain, garaiko lurrunaren baldintza geofisikoak eta pinturak egin zituen jende hark zapaldu zuen landaredia erreplikatu nahi da. Laster jakingo da Ekaingoa-rekin horrelakorik egiterik egongo den edo ez.

Kobazuloaren kalkoa

Arte-, zinema-, eta antzerki-munduaren dekoratuetako berezitasunak bilduz, Fac-simile izeneko teknika erabiltzen da kobazuloen erreplikak egiteko. Fac-similearen bidez obra zaharra berregiten da, tamaina errealean eta hiru dimentsiotan. Argazkigintza dago fac-simile teknikaren oinarrian. Teoria oso sinplea bada ere, datuak ongi biltzean dago lehen zailtasuna. Ondoren kobazulo horien argazkia tailerlean proiektatzen da, erreplikaren hormaren gainean, ikuspuntuaren neurri biak errespetatuz (fokala eta posizionala), eta deformazio barietate; hau da, tamaina eta itxura naturalean. Kalko bat egitea bezala litzateke, bai horma berregiteko eta baita margoak eta grabatuak berregiteko ere.

B. Kortabarría



Muino honetan aurkitzen da jatorrizko Ekain.

Kortabarría




Deba-Beherekoak egindako proiektuaren arabera, Ekain 2 proiektua Astigarribia haranean garatuko litzateke.

Horma bera berregiteak bi fase ezberdin izaten ditu: batetik, bolumen eta erliebe orokorren kopia; bestetik, hormaren berriztapen minerala. Lehen fasea egiteko estereofotometriaz (argazkigintza-teknikaz) baliatzen dira, estratifikatutako poliester-moldeak eginez. Moldeak arinak eta desmuntagarriak dira. Berriztapen mineralerako, lehen fasean ateratutako moldearen gainean egiten da




A.R.S. 2000



A.R.S. 2000



A.R.S. 2000



Fac-simile teknika erabiliz egiten dira kobazuloen erreplikak, argazkigintza, pintura, eskultura eta eszenografia-lanak nahastuz eta material zein baliabide zahar eta modernoak erabiliz, pintzelak eta ordenadoreak kasu.

A.R.S. 2000




A.R.S. 2000



lana. Mineral naturaletan oinarrituta (area, buztina, silizea...) konposizio akrilikoak sortzen dira, manejatzeko errazak, moldeatzeko teknika denak onartzen dituztenak, kolore-gama osoa erabiltzea ahalbidetzen dutenak, zuzenketak egitea onartzen dituztenak, eta ikusi ezin diren loturak egiteko modukoak. Emaizta, errealismo eta fidagarritasun osoa gordezen duen horma; horma, eta aldi berean, denbora luzez iraungo duen moldea, tailerlean egin, lotu, eraman, erakutsi behar den tokian jarri, eta ondo baino hobeto egokitzen dena. Behin hormaren kopia eginda, margoen eta grabatuen kopia

egin behar da. Kasu honetan ere, proiektatutako irudia erabiltzen da, lan originala fac-similaren gainera botata. Kolore originalak errespetatu daitezkeen, historiaurreko artistek erabilitako kolorante berdinak erabiltzen dira: lurra, ikatza eta oxido naturalak. Berritzatzeko tresnetan, berriz, denetarik, pintzel finenetatik hasita ordenadore modernoeneraino: pintzelak lan zehatza egitea ahalbidetzen du; ordenadoreak, berriz, argazkiaren gaineko informazio gehiago eman dezake, irudia puntuz puntu zatituz eta ñabardura bakoitza isolatuz. Modu berean egiten dira grabatuak, molde akrilikoetan erraz egin

daitezkeelako mota guztietako ebakidurak. Adituen ustez teknika honek ikerkuntzarako du meritu gehien, lana bera egiterakoan zein baldintzatan egin zen ikus daitekeelako, baina hori baino gehiago ere bada. Izan ere, honelako tekniken bidez, orain arte gutxi batzuentzat gordeta egon den zerbait denon begien aurrean jartzen da. Eta iragana, etorkizuna bezala, denona izanda, denontzat da beharrezko. Txepetxek horretaz badaki zerbait. 

* Elhuyar